

Eusko Jaurlaritza: ekiozu unibertsitate publikoarekin daukazun ardurari

Ikasturte honetako lehen lauhilekoan EHUUn greba egitera eta mobilizatzeraz bultzatu gintuzten arazo gehienek beren horretan diraute bigarren lauhilekoaren hasiera honetan.

Lehen lauhileko mobilizazio eta grebetan sindikatuok salatu genuen unibertsitatean arazo estrukturalak ditugula eta EHUko langile kolektibo batzuen lan-baldintzen prekarizazioa geroz eta larriagoa dela, finantzaketa falta izanik erroko arazoa. Gure aldarrikapen nagusiak irakasle ordezkoen prekarizazioarekin amaitzea, langile guztion erosahalmenaren berreskuratzea, irakaskuntza eta lan zamaren jaitziera, eta, oro har, unibertsitate publikoaren finantzaketa handitzea izan ziren.

Gure eskaeren inguruan hitz egiteko biltzeko eskari bana erregistratu genuen, Hezkuntza sailburuari zein EHUko errektoreari zuzenduta. Azken honen kasuan, ia 3 hilabete beranduago izan genuen bilera irakasle eta ikertzaileen errektoreordearekin. Hala ere, aitzakiak medio, jasotako erantzunek ez zuten arazoa errotik konpontzen, kasu gehienetan arazoaren muina ekiditen duten aldaketa minimo batzuetara mugatuta.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, ez dugu oraindik erantzunik jaso. EHUko sindikatuok ez omen gara EHUko langileen baliozko hizketakideak...

EHUko zuzendaritzaren ardura ahaztu gabe, Eusko Jaurlaritzaren esku ere badago EHUUn eta EHUko langileen baldintzetan eragin zuzena daukaten erabakiak hartzea:

Eusko Jaurlaritzaren esku dago unibertsitate publikoaren finantzaketa handitzea (azken urte hauetan BPGren % 0,4 inguruan egon dena, eta, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren arabera, 2030erako BPGren % 1era heldu behar dena...), unibertsitate publikoak behar duen moduan hornitu ahal izateko, unibertsitate pribatuei alfonbra gorria jarri ordez.

Eusko Jaurlaritzaren esku dago EHUko langileok erosahalmena berreskuratzea, baita irakasle-ikertzaileok 2006tik hona izoztuta ditugun osagarri gehigarriak eguneratzea ere (% 30etik gorako balioaren galera izan dugu).

Eusko Jaurlaritzaren esku dago langileen alde irabazitako epaiei helegiteak ez jartzea. Azken adibidea, sindikatuen ekimenez aldi baterako irakasle-ikertzaileek ikerketa seiurtekoak eskatzeko eta jaso ahal izateko izandako aldeko sententzian daukagu, non ebazpenaren kontra helegitea jarri duten, kolektibo honek pairatzen duen diskriminazioa mantentzeko.

Eusko Jaurlaritzaren esku dago 41/2008 Dekretua aldatzea. Izan ere, Dekretu horrek ezartzen ditu arduraldi partzialeko irakasleen miseriazko soldatak (400 eta 800 euroren artekoak, arduraldiaren arabera). USLO indarrean sartzean, egoera okertu da. Izan ere, arduraldi osoko irakasleen baimen, baja edo eszedentziak ordezkatzeko arduraldi partzialeko kontratuak baino ez dituzte egiten. Irakasle horiei klase eta tutoretza orduak baino ez zaizkie ordaintzen, eta klaseak prestatzeko, formaziorako, irakaskuntzaren kudeaketarako lanerako edota irakaskuntzari lotutako ikerketarako orduak ez zaizkie aitortzen. Klaseak emateko lan-esku merke moduan erabiltzen dituzte ordezkioak. Langile horien lan-baldintzez gain, sailen antolaketan eta ikasleek jasotzen duten

irakaskuntzaren kalitatean ondorio negatiboak dauzka. 41/2008 Dekretua aldatzea, arazo honi eta beste batzuei konponbidea jar diezaieke, baina, horretaz kontzientea izan arren, Eusko Jaurlaritzak aukera horri uko egiten jarraitzen du.

Errektoretza-taldea eta Eusko Jaurlaritzaren jarrera murriztaile eta immobilistaren aurrean, EHUko irakasle eta ikertzaileok mobilizatzen jarraituko dugu lan-baldintza egokien eta kalitatezko unibertsitate publikoaren defentsan. Horregatik, LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok deituta, martxoaren 6an, EHUko irakasle eta ikertzaileok greba egingo dugu. Horregatik, martxoaren 12an, EHUko langile guztiok sektore publikoan deitutako grebara gehituko gara.

Eusko Jaurlaritza, ez ezkutatu eta beharrezko neurriak hartu unibertsitate publikoaren alde!

Prekarizazio eta diskriminaziorik ez!



Gobierno Vasco: afronta tu responsabilidad con la universidad pública

La mayoría de los problemas que nos llevaron a hacer huelga y movilizarnos en la UPV/EHU en el primer cuatrimestre de este curso persisten en este segundo cuatrimestre.

En las movilizaciones y huelgas del primer cuatrimestre los sindicatos denunciábamos que en la universidad tenemos problemas estructurales y que la precarización de las condiciones laborales de algunos colectivos de trabajadores y trabajadoras de la UPV/EHU es cada vez más grave, con la falta de financiación como problema de raíz. Nuestras principales reivindicaciones fueron acabar con la precarización del profesorado sustituto, recuperar el poder adquisitivo perdido, disminuir la carga docente y laboral, y aumentar la financiación de la universidad pública.

Registramos sendas solicitudes para reunirnos tanto con el Consejero de Educación como con la Rectora de la UPV/EHU, con el fin de trasladarles nuestras peticiones. En este último caso, casi 3 meses después de solicitarlo, tuvimos una reunión con el Vicerrector del personal docente e investigador (PDI). Sin embargo, con una excusa u otra, las respuestas recibidas no planteaban soluciones a las causas de los problemas, limitándose en la mayoría de los casos a unos mínimos cambios que evitan afrontar las cuestiones clave.

En el caso del Gobierno Vasco, aún no hemos recibido respuesta a la petición de reunión. Parece ser que los sindicatos de la UPV/EHU no somos interlocutores válidos de los trabajadores de dicha universidad...

Sin perjuicio de la responsabilidad de la dirección de la UPV/EHU, está en las manos del Gobierno Vasco la adopción de diversas decisiones que inciden directamente en la UPV/EHU y en las condiciones laborales de sus trabajadoras y trabajadores:

Está en manos del Gobierno Vasco aumentar la financiación de la universidad pública (que en los últimos años ha estado en torno al 0,4% del PIB y que, según la Ley Orgánica del Sistema Universitario, debe alcanzar el 1% del PIB para 2030...) para que ésta pueda disponer de los recursos que necesita, en vez de dedicarse a poner la alfombra roja a las universidades privadas.

Está en manos del Gobierno Vasco recuperar el poder adquisitivo del personal de la UPV/EHU, así como actualizar los complementos adicionales que el PDI tiene congelados desde 2006, y que han supuesto una devaluación superior al 30%.

Está en manos del Gobierno Vasco no recurrir las sentencias judiciales a favor de los trabajadores. El último ejemplo lo tenemos en la sentencia que reconocía a todo el personal docente investigador temporal la posibilidad de solicitar sexenios de investigación; sentencia que han recurrido para mantener la discriminación sobre este colectivo.

Está en manos del Gobierno Vasco modificar el Decreto 41/2008. De hecho, es este Decreto el que establece los salarios de miseria del profesorado a tiempo parcial (entre 400 y 800 euros, en función de su dedicación). Con la entrada en vigor de la LOSU, la situación ha empeorado, ya que ahora las bajas, permisos

y excedencias del profesorado a tiempo completo se sustituyen únicamente mediante contratos a tiempo parcial. A estas profesoras y profesores solo se les retribuyen las horas de clase y tutorías, y no se les reconocen las horas de preparación de clases, formación, gestión relacionada con la docencia ni la investigación vinculada a la docencia. Utilizan al profesorado sustituto como mano de obra barata para impartir clases. Además de sobre las condiciones laborales de este personal, esta práctica tiene consecuencias negativas en la organización de los departamentos y en la calidad de la enseñanza que recibe el alumnado. Modificar el Decreto 41/2008, puede poner solución a este y otros problemas. A pesar de ser conscientes de ello, el Gobierno Vasco sigue rechazando esta posibilidad.

Frente a la actitud restrictiva e inmovilista del equipo rectoral y del Gobierno Vasco, el personal docente e investigador de la UPV/EHU seguiremos movilizándonos en defensa de unas condiciones de trabajo dignas y una universidad pública de calidad. Por eso, convocados por los sindicatos LAB, STEILAS y ELA, el 6 de marzo, el personal docente e investigador de la UPV/EHU iremos a la huelga. Por eso, el 12 de marzo, todos y todas las trabajadoras de la UPV/EHU nos sumaremos a la huelga convocada en el sector público.

¡Gobierno Vasco, dad la cara y tomad las medidas necesarias a favor de la universidad pública!

¡No a la precarización ni a la discriminación!

